

GORAZARREA
Eguberrialdia
JAINKO ONBERA ETA ERRUKIZ BETEA

GORAZARREA	2022-2023 Eguberrialdian egosia
Jatorrizko testua: Dionisio Amundarain Kantatzeko moldaketa: Pello Esnal	Dionisiok Amundarainen jatorrizkoa
Jainko errukiz betea zara, zintzoa eta onbera, zeuk jarria dut barru-barruan zeureganako joera. Hau da egarri hondogabea, aseezina sobera, alditan ezti gozoa baina sarri arantza minbera!	Jainko onbera eta errukiz neurri gabe betea, zuk duzu itsatsi nire barnean, ezkutuan, Sagarrondo batean sagarra eman beharra bezala, zugana jo beharra itsatsi duzu, ur-egarria baino biziagoa, zugan bilatu beharra nire betea eta osotasuna, isuri gozo bezain mina, garratz ere izaterainokoa.
Nire egarri hondogabeak zu zaitu sustrai jakina, baina bi begi lausotuontzat erabat ikusezina. Zeure Semea ere bidali zenigun gizon egina, zerorren auto erretratua, denean gure berdina.	Isuri eta joera, askotan jatorri ezezagunekoa ene bista lausotuarentzat, berez jakina badu ere sorburua. Zuk, ordea, ezin etsi erremedioa bilatu gabe, eta, Aita, zeure errukizko argitasun bizi- asmatzaile bihozbera eta argia bihurtu zara: zeure Semea bidali diguzu haragi egina.
Zer asmatzaile harrigarria, zer asmazio itzela! Geroztik gure eskura dugu zure argazki fidela, inork ez dezan gehiago esan ikusezina zarela edota zure ikuspegia ezin atzemana dela.	Asmatzaile egundokoa! Asmazioa ere zoragarria. Jesus, haragizkoa, ikusgarria. Zeure auto erretratua, itsuarentzat ere argia: zeure argazkia eman diguzu: «Jauna, ikus dezadala», esan dio itsuak barne ikusmenez. Inork ezin esan dezan ezin atzemana zarela, inork ezin esan dezan ikusezin zarela.

<p>Baina, halere, nahiago dugu segi Kainen jokoan: anai-arrebak jo eta hiltzen hitz dotoreen zokoan; ai zenbat bitxi sartzen ditugun beti eske den kolkoan, zureganako joera hori aseko dugulakoan!</p>	<p>Baina, baina... zenbat eta zein Kain anker garen, anaiaren hiltzaile: Jesus gure anaia bera hil baitugu, Nazaretekoa bezala, gurekin bizi den hainbat eta hainbat anai-arrebaren hiltzaile baikara, «nork jarri nau ni nire anaiaren, nire arrebaren zaintzaile» esanez, zuk, Aita, itsatsitako isuria eta joera isilduko dugulakoan..</p>
<p>Zuk Espiritu Santua ere bidali diguzu horra, berriro ere goza dezagun geure baitako altxorra; bereiz ditzagun zoritxarrera daraman bide elkorra eta zorionbidean jartzen gaituen lur emankorra.</p>	<p>Orduan ere, ordea, hartarainoko gure gogozko itsutasunaren aurka, zeugandik eta Semeagandik den Espiritu Santua bidali diguzu, samurtasunez, argiago egiteko geure zori txarra, geure kalterakoa, eta, ikusteko, bideragarri dugula zuk ezarritako jatorrizko zinezko giza zorira itzultzeko bidea.</p>
<p>Ama bat ere eman diguzu. Hori da eman beharra: Semea eta Espiritua eta ama hain gutarra! Badugu zeinek lagundu eta zeinek xukatu negarra. Ez da galduko basamortuan gizakion deiadarra.</p>	<p>Zeure barne isuri bizigarria ez ezik, zeure Semea maitasun ezin imajinatuz bidaltzeaz gain, zeugandik eta Semeagandik den Espiritua emateaz aparte, ama bat eman diguzu, Semearen ahoz gurutzetik esana: «Horra zeure semea», «Horra zeure ama». Zure Semea munduratu zuena bera: Hau handitasuna gurea</p> <p>Zu, Aita, bihozbera, nahikoa ez eta, zure Semea, gure anaia, gure neba nahikoa ez eta, biongandik den Espiritu Santua nahikoa ez eta, zeuk gure barnean itsatsitako ama baten beharra asetzeko, ama eman diguzu, giza bihotza adoretzen duena; Aita, Anaia, Espiritua eta ama;</p>

	bakartasun-konplexuen uxatzailea.
<p>Andre Maria, ama zaitugu, Jesusek berak emana. Hura bezala Espirituaz sortu gaituzu zuk, ama. Zein gozoa den, zein amultsua, zure begien laztana! Zuri begira samurtu ohi da gure bihotzeko zama.</p>	<p>Andre Maria, ama zaitugu, Jesusek emana, haragiz eta fisikoki ez bazara ere, zeruko Aitak eta Semeagandik den Espirituaz sortu gaituzu zuk, ama, era misteriotsu bezain zinezkoan, Jesus zeure Seme kutuna, gure Askatzailea, Aingeruak esanda, sortu zenuen bezala.</p>
<p>Aita, Semea, Espiritua, aintza eta gorespena! Zuek zarete gure sorburu, zuen ispilu da dena: natura, Aita, zure irudi, gizakia Jesusena; Espirituak geure baitan du oihartzunik ozenena.</p> <p>Oharra. Bi doinu erabiliz daude moldatuak bertsoak: «Birjina maite» doinuaz zortzigarren bertsoa, eta «Gaueko izar argitsuena» doinuaz beste guztiak. Bigarren doinu horren orde, beste bat ere erabil daiteke, aukeran, bertso guztientzat: «Haurtxo txikia negarrez dago», esaterako.</p>	<p>Doakizue Aita kreatzailea, Seme salbatzailea eta Espiritu Santu argitzaile eta barne astintzailea, nire aintza eta gorespena, gogoz, hitzez eta ekintzaz; ezagut dezala munduak, Aita, zure eskua naturan; aitortu zaitzala gizadiak, Jesus, goraki eta lotsarik gabe; eskertu dezala jendeak, Espiritua, zure barneko mugida bizigarria. AMEN,</p> <p><i>(Dionisio Amundarain, 2022-2023ko Eguberrialdia)</i></p>